



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 11

66. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2010eko maiatzaren 31n hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko irailaren 3ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena

ATARIKOA

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika lana arautzen duen lege esparrua ezarri zuen, foru erkidegoko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adina informazio fidagarria eta alderagarria edukitzeko helburuarekin.

Lege testu horretan berean, datuen hornitzaileek eta informazioaren erabiltzaileek estatistika lana egin eta garatzen duen organoarekin dituzten harremanak arautzen dira. Bertan, datuak eman beharra, emaitzak egoki argitaratu eta zabaldu beharra eta betiere sekretu estatistikoa errespetatu beharra ezartzen dira. Era berean, Estatistika Plana estatistika lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko baliabide egokia dela adierazten du. Lan hori Nafarroako Estatistika Sistemak egingen du.

Foru lege honek Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana ezartzen du. Nafarroako Parlamentuak onesten duen halako laugarren legea da honako hau, aurretik 1999-2002, 2003-2006 eta 2007-2010 aldietako estatistika planei buruzkoak onetsi baitzituen. Horrekin Nafarroako estatistika sistema sendotu eta indartzeko prozesuari segida eman nahi zaio. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen aurreikuspenen arabera, planaren indarraldian garatu beharreko helburu orokorrak eta berariazkoak ezartzen dira, baita horiek lortzeko estatistika lanak ere. Lan horiek Nafarroako Gobernuak onesten dituen urteko estatistikako jarduketa programetan sartzen diren jarduketetan gauzatzen dira.

Azkeneko planaren indarraldia bukatu, bidezkoa da beste plan bat onestea. Horretarako erabili behar den arau-tresna foru legea da.

Lege testu hau Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenekin bat dator. Helburuen arabera plangintza sistema baten bidez, gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei erantzuna ematea du helburu, eta horrekin batera, ateratzen diren adierazleek informazioa ematea erakunde publiko-eragile ekonomiko-eragileei eta gizarte eragileei, ahal bada genero ikuspegiaren, nazionalitatearen eta jaiotako herrialdearen arabera, eta betiere sekretu estatistikoa eta informazio estatistikoaren eskuragarritasuna, azkartasuna eta erabilgarritasuna bermatuz.

Bereziki, plan honen helburu estrategikoa da MODERNA planean adierazitako helburu eta ekintzen segimendu eta ebaluaziorako behar diren eragiketa eta adierazleak egitea, plan hori, bukatzeko fasean dagoena, 2030. urterako Nafarroako Garapen Ekonomikorako Eredu berria baita.

2011-2016 Estatistika Planak hiru ardatz estrategikotan egituratzen da: Antolaketa, Ekoizpena eta Zabalkunde estatistikoa. Hiru ardatz nagusi horietan jasotzen dira planaren indarraldian lortu nahi diren helburu orokorrak.

Antolaketari dagokionez, Nafarroako Estatistika Sistema osatu nahi da, departamentuetako estatistika unitateak sortuz. Horien ardua izanen da departamentu bakoitzeko estatistika ekoizpena koordinatzea.

Ekoizpenari dagokionez, 2011-2016 Planak pertsonen buruzko informazio berria lortzea bultzatuko du, azken urteetan Nafarroako biztanleriaren osaketa eta dinamika nabarmen eraldatu dituzten aldaketa demografikoak ikertuz. Jarduera ekonomikoa aztertzen segituko da eta bi sektore estrategikoren azterketan sakonduko da, hots, hezkuntza eta osasuna, bi sektore horietako Kontu Sateliteak eginez. Planean aipamen berezia merezi duen beste alderdi bat ingurumenaren eta iraunkortasunaren arloa da.

Zabalkunde estatistikoari dagokionez, helburua da planean jasotako eragiketen datu estatistiko guztietara azkar iristeko bidea bermatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz.

Horrez gain, foru lege honek Nafarroako Gobernuaren eta entitate publikoen zein nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaren instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako

Estatistika Institutuak plan hau betetzeko izanen dituen eginkizunak ere.

Azken xedapenetan lehenean Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen da, V. titulua eransten baita. Titulu horren bidez Nafarroako Populazioaren Erregistroa sortzen da, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz. Horren bidez, autonomia erkidegoetako administrazioek populazio erregistro edo fitxategiak sor ditzakete datu hauek sartuz: izena, abizenak, helbidea, sexua, jaioteguna eta NANaren zenbakia, edo atzerritarren kasuan, agiri horren ordezkia. Erregistro horiek Estatistikako Institutu Nazionalak igortzen dituen kopia eguneratuetatik abiatuz osatuko dira. Erregistro horri esker Nafarroako Foru Komunitateko organoek bere lurraldeko egoiliarrekin harremanetan sartzeko aukera izanen dute, bere eskumenetatik datozen harreman juridiko-administratiboan esparruan.

Administrazio publiko baten fitxategia denez, aipatutako lege organikoaren 20. artikuluan ezarritakoa bete behar da, horren bidez ezartzen baita fitxategi publiko bat sortu, aldatu edo kentzea xedapen orokor baten bidez eginen dela bakar-bakarrik, eta xedapen hori Estatuko Aldizkari Ofizialean edo kasuan kasuko egunkari ofizialean argitaratu behar dela. Era berean, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 52. artikuluan xedatzen duenez, titulartasun publikoko fitxategiak xedapen orokor edo erabakien bidez sortu behar dira eta horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean edo kasuan kasuko aldizkari ofizialean argitaratu behar dira; 53. artikulua, berriz, berariazko legeria betetzeko agintzen du, autonomia erkidegoen ardurapekoak diren fitxategiei dagokienez. Fitxategia sortzeko xedapenak edo erabakiak izan behar duen edukia erregelamendu beraren 54. artikuluan azaltzen da.

Nafarroako Populazioaren Fitxategiaren kudeaketa Nafarroako Estatistika Institutuari esleitzen zaio, estatistikaren arloan eskumena duen organoa baita, datu pertsonal ugariren tratamendua egiten esperientzia duena. Nafarroako Estatistika Institutua Nafarroako Foru Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikita dago. Haren izaera eta eginkizunak Foru Komunitateko estatistika lan publikoa arautzen duen ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 30. artikuluan eta ondokotik agertzen dira.

Nafarroako Populazioaren Erregistro berriari jasoko dira Nafarroako udal erroldetan eta hauteskunde-zentsuan agertzen diren bizila-

gun bakoitzaren banakako datuak, haien baimenik eman gabe, datu horiek ezinbestekoak baitira hala estatistika demografikoak egiteko, nola Nafarroako Foru Komunitatearen berezko eskumenak erabiltzeko. Horrela, otsailaren 16ko 50/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua bidez Nafarroako Estatistika Institutuari esleitu zitzaion eginkizuna osatu eta hobetzen da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 44. artikulua dio administrazio espedienteak tramitatzean baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabili behar direla lagungarri gisa, betiere bermeak errespetatuz eta antolamendu juridikoak kasu bakoitzerako aurreikusten dituen baldintzak betez.

Azkenik, foru lege honen eranskin gisa, honako hauek jasotzen dira: Eragiketa Estatistikoaren Inbentarioa (I. eranskina), Eragiketa Estatistikoaren Inbentarioa, Nafarroako Gobernuaren dauden departamentuen arabera sailkatua (II. eranskina), eta Eragiketa Estatistiko bakoitzaren laburpen fitxak (III. Eranskina).

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana.

Foru lege honen bidez onesten den Nafarroako 2011-2016 Estatistika Plana Nafarroako Foru Komunitateko estatistika lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna da eta Nafarroako Gobernuaren eta ondoko hauen arteko erakunde-lankidetzaren esparrua ezartzen du:

a) Gobernuaren parte diren erakunde eta enpresak.

b) Entitate publikoak.

c) Espainiako eta nazioarteko erakundeak.

Lankidetzaren horren xedea da Nafarroako estatistika sistema eta ingurukoak gero eta koherenteagoak, homogeenagoak eta konparagarriagoak izatea.

2. artikulua. Indarraldia.

Orain onesten den Nafarroako Estatistika Planaren indarraldia 2011ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2016ko abenduaren 31n bukatuko da. Dena dela, plan hau iraungitzean plan berri bat onetsi ez bada, hurrengoak indarra hartu arte luzatuko da, salbu eta ezarritako epe edo aldiengatik salbuetsi behar diren eragiketen ingurukoetan.

3. artikulua. Entitate estatistika sortzaileak.

1. artikuluko a) letran aipatzen diren entitateek plan honetan eta plana garatzeko urteko estatistika programetan agintzen zaizkien estatistikak prestatuko dituzte, dela zuzenean, dela beste entitate batzuekin lankidetzan.

4. artikulua. Estatistika Planaren koordinazioa.

Nafarroako Estatistika Institutuak Estatistika Plana eta Urteko Estatistika Programak sustatuko ditu, eta helburu horrekin, lan hauek egiten ditu:

a) Urteko Estatistika Programaren proiektuak prestatu eta haien tramitazioa eta onespenera sustatzea.

b) Nafarroako Administrazio Publikoari aholku teknikoak ematea Estatistika Planaren eta Urteko Estatistika Programaren aginduz egin behar dituzten eragiketa estatistikoaren gainean.

c) Foru lege honen bidez eta legea garatzeko Urteko Estatistika Programaren bidez agintzen zaizkion lan estatistiko instrumentalak egitea edo proposatzea.

d) Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean aurreikusitakoari jarraituz, estatistikak arautzeko arau teknikoaren proiektuaren tramitazioa eta onespenera prestatu eta sustatzea, Estatistika Planaren eta hura garatzeko Urteko Estatistika Programetan aginduz gero.

e) Nafarroako Administrazio Publikoek estatistikari buruzko legeria betetzen dutela begiratzea, Estatistika Planaren eta Urteko Estatistika Programetan estatistikak egitea agintzen zaienean.

f) Estatistika ekoizpenaren kalitatea bermatzea, behar diren egiaztapenak eginez.

g) Nafarroako informazio eta dokumentazio estatistikoaren inbentarioa formulatzea eta haren mantentze-lanak egitea.

h) Nafarroako Estatistika Planaren sartutako estatistikaren segimendua egitea.

i) Foru lege honen 1. artikuluan aipatutako entitateekin estatistikaren gainean eduki beharreko harremanak erraztea.

5. artikulua. Estatistika lanak.

Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira estatistika lanak:

a) Estatistikak egiteko datu kuantitatibo edo kualitatiboak bildu, lortu, prozesatu eta gordetzea, emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta antzeko beste eginkizun batzuk, Nafarroako Estatistikari

buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Estatistikaren gaineko legedian ezarritako betebeharrak bete ahal izateko teknikoki beharrezkoak diren edo legeak eskatzen ahal dituen lan instrumentalak, aurreko letran adierazitako lanen aurretikoak edo osagarriak direnak, konparazio batera: prestakuntza berariazkoagoa, ikerkuntza eta garapen teknikoak, metodologikoa eta arauemailea estatistikaren arloan.

II. KAPITULUA

Estatistika Planaren ardatz estrategikoak eta helburuak

6. artikulua. Helburu orokorra.

Nafarroako 2011-2016 Estatistika Planaren helburu orokorra Nafarroako estatistika sistema garatu eta handitzea da gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei erantzuna emateko, eta horrekin batera, ateratzen diren adierazleek informazio hori erakunde publikoei, eragile ekonomikoei eta gizarte eragileei emateko, generoaren ikuspegia sartuz ahal den guztietan, ahalik eta kosturik txikiena sortzea eta dauden iturriak ahalik eta gehien aprobetxatzea irizpidetzat hartuz, zerbitzuak bikoiztea saihestuz, herritar, enpresa eta erakundeentzako arazoak gutxituz eta sekretu estatistikoa eta informazio estatistikoaren eskuragarritasuna, azkartasuna eta erabilgarritasuna bermatuz.

Bereziki, sei urte hauetarako planaren helburu estrategikoa da MODERNA Planak finkatutako helburu orokorren segimendua egoki egiteko behar diren eragiketa eta adierazleak egitea, Nafarroako Gobernuak, planean parte hartzen duten erakundeek eta gizarteak oro har plan horren betetze-maila ebaluatzeko behar dituzten adierazleak sortuz.

7. artikulua. Ardatz estrategikoak

2011-2016 Estatistika Planak honako ardatz estrategiko hauetan egituratzen da, antolaketari, ekoizpenari eta zabalkunde estatistikoari dagokienez. Ardatz horietan biltzen dira planaren indarraldiko sei urteetan lortu nahi diren helburu orokorrak:

a) Antolaketa. Nafarroako Estatistika Sistema osatu nahi da, departamentuetako estatistika unitateak sortuz.

b) Ekoizpena. Nafarroan gertatutako aldaketa demografikoei buruzko informazioa handitu eta hobetu nahi da; hezkuntzaren eta osasunaren sektoreak hobeki ezagutu, bi sektore horietako Kontu Sateliteak prestatuz; ingurumenaren eta iraunkortasunaren arloetan estatistika ofiziala sustatu; eta

kudeaketa ebaluatu adierazleak sortuz garapen ekonomiko eta soziala beste lurralde eremu batzuetakoarekin konparatu ahal izateko.

c) Zabalkundea. Estatistika ofizial guztia modu garbian eta ulergarrian eskura daitekeela bermatzea. Horretarako Internet lehenetsiko da zabalkunderako baliabide gisa eta Nafarroako Estatistika Institutuaren webgunea Nafarroako estatistika ofizialaren atari bihurtuko da.

8. artikulua. Antolaketaren arloko helburuak.

Antolaketaren ardatz estrategikoaren helburuak hauek dira:

a) Nafarroako Estatistika Sistema osatzea departamentuetako estatistika unitateak sortuz, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 33. eta 34. artikuluetan aurreikusi bezala.

b) Egiten diren inkestetan intimitatea eta sekretu estatistikoa errespetatzen direla bermatzea eta, halaber, estatistiken zorrotasuna eta zuzentasun teknikoa, emaitzen zabalkundea eta, informazioa bildu eta bidaltzeko prozesuetan, segurtasuna bermatzea.

9. artikulua. Ekoizpenaren arloko helburuak.

Ekoizpen estatistikoaren ardatz estrategikoaren barrenean honako hauek daude:

a) Demografia. Nafarroako populazioaren osaketan eta dinamikan azkeneko urteetan gertatutako aldaketak hobeki ezagutzeko prozesuan aurrera egitea.

b) Ekonomia. Informazio ekonomikoa handitzea, bilakaera ekonomikoaren segimendu zorrotza eta eguneratua egin ahal izateko. Nafarroako hezkuntzaren eta osasunaren sektoreetako informazioan sakontzea.

c) Ingurumen arloko estatistikak garatzea, natur baliabideen egoera, ingurumenaren bilakaera eta ingurumenaren eta beste gertakari ekonomiko eta sozialen arteko harremanak zehatz-mehatz ezagutzeko.

d) Adierazleen ekoizpenean aurrera egitea, garapen ekonomikoa eta soziala ebaluatu eta beste errealitate batzuekin konparatu ahal izateko.

10. artikulua. Zabalkundearen arloko helburuak.

Zabalkunde estatistikoaren ardatz estrategikoaren helburuak honako hauek dira:

a) Erabiltzaileen beharrak asetzea informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eta

Internet erabiliz zabalkunderako oinarrizko bide gisa.

b) Estatistika koiunturalak ekoizteko egutegiaren berri ematea, informazio bakoitza noiz egonen den eskuragarri aurretik jakin ahal izateko.

c) Estatistika Planean eta ekoizpen estatistikoaren urteko programetan sartutako estatistiken emaitzak izan, zabaldu eta argitaratzea, Nafarroako Estatistika Institutuaren webgunearen bidez, Nafarroako estatistika ofizialaren ataria izanen baita.

11. artikulua. Helburu instrumentalak.

Hauek dira berariazko helburu instrumentalak:

a) Estatistika ofizialaren erabilera zabaldu eta sustatzea.

b) Nafarroako estatistika publikoaren arloan prestakuntza espezializaturako eta hobekuntzarako behar diren jarduerak garatzea, Nafarroako Estatistika Sistemaren inplikaturiko langileei, baita profesional eta erabiltzaileei ere, metodo, teknika eta iturri estatistikoak hobeki ezagutzeko aukera emateko.

c) Estatistikaren arloko ikerkuntza sustatzea, hala alderdi metodologikoetan, nola Nafarroako Foru Komunitatearentzat interesgarriak diren gaien aplikaturiko alderdietan, Nafarroako errealtate ekonomiko, demografiko eta soziala eta ingurumen eta lurralde egoera hobeki ezagutzen laguntzeko.

d) Nafarroako Estatistika Sistemak eskaintzen duen informazioaren normalizazioa, homogeneotasuna eta Estatuko eta Europako estatistika sistemekiko konparagarritasuna sustatzea.

e) Nafarroako informazio estatistikoaren lurralde-erreferentzialtasuna garatzea.

III. KAPITULUA **Estatistika Planaren garapena**

12. artikulua. Urteko programa.

Informazioaren berariazko helburuak Urteko Estatistika Programaren bidez garatuko dira. Programa horietan urte bakoitzean egin beharreko jarduerak zehaztuko dira.

Berariazko helburu instrumentalak berariaz onetsiko diren programen bidez garatuko dira.

13. artikulua. Eragiketa estatistiko jakin batzuk sartzea.

1. Salbuespen gisa, Urteko Estatistika Programetan sartzen ahalko dira Planean jasota ez dauden eragiketak, programa horretan sartzeko aintzat hartutako arrazoiak programan bertan azaltzen baldin badira eta eragiketek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nafarroako Estatistika Planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Oinarrizko proiektu tekniko bat izatea, funtsezko alderdiak zehazten dituena, bereziki Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2.b) artikuluan jasotako zehaztapenak, hori guztia garatu beharreko estatistika lanen kaudimena bermatzeko.

c) Aplikagarriak diren zehaztapen teknikoetara doitzea.

d) Aplikatzen den metodologia dela-eta, ateratzen diren emaitzak fidagarriak eta beste estatistika batzuekin konparagarriak izatea.

e) Bidezkoa denean, aldizka eguneratzeko modukoak izatea.

f) Teknikoki posible den lurralde-banakatzerik handiena erabiltzea, hori lagungarria dela iritziz gero.

g) Emaitzen zabalkundea egiteko modua aurreikustea.

2. Estatistika lan horiek Urteko Estatistika Programetan sartzea eta egitea, betiere, aurrekontu eta antolaketa arloetako baliabideen menpe izanen da.

3. Urteko Estatistika Programetan sartzen diren estatistika lanak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialtzat hartuko dira, eta lan estatistiko horiek egiteko eskatzen diren datuak ematea nahitaezkoa izanen da, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 11/1997 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

14. artikulua. Betebeharrak.

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 28.1 artikuluan aurreikusitakoaren babesean egiten diren estatistika eragiketek aurreko artikuluan araututako eragiketei eskatzen zaizkien betebeharrak bete beharko dituzte.

15. artikulua. Urteko estatistika programaren onespena.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluak aurretiko txostena eman ondoren, Urteko Estatistika Programa onetsiko du, programa horri dagokion urtearen aurreko abenduaren 31 baino lehen.

Urteko Estatistika Programa bakoitzaren indaraldia urte naturala izanen da. Hala ere, hurrengo

plana onetsi arte luzatuko da, beren izaera dela-eta jarraitutasuna behar duten lanetarako.

16. artikulua. Segimendu txostena.

Nafarroako Estatistika Institutuak Urteko Estatistika Programa bakoitzaren segimendu txostena eginen du, gero Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, bidezkoa bada.

Era berean, plana bukatu ondoren, departamentu bakoitzak egindako estatistika lana zehazteko Nafarroako Estatistika Institutura bidaliko duen memorian oinarrituz, Nafarroako 2011-2016 Estatistika Planaren ebaluaziorako proposamena eginen du, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen ezarritakoarekin bat.

Nafarroako Gobernuari igorri aurretik, dokumentu horiek Nafarroako Estatistika Kontseiluari jakinaraziko zaizkio.

IV. KAPITULUA

Erakundeen arteko lankidetzak

17. artikulua. Entitate laguntzaileak.

Entitate laguntzaileetat hartuko dira Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin bi alderdien intereseko helburuetarako hitzarmenak izenpetzen dituztenak.

Departamentu horrek, Nafarroako Estatistika Institutuaren bidez, eta entitate laguntzaileek bi alderdien interesekoa den informazio estatistikoa emanen diote elkarri, baita estatistikak prestatzeko beharrezkoa den laguntza tekniko ere.

18. artikulua. Nafarroako Estatistika Institutuaren harremanak.

Nafarroako Estatistika Institutuak, egokia iruditzen bazaio, estatistika lanak egiten dituzten mota guztietako entitate eta erakundeetara jotzen ahal du, Nafarroako 2011-2016 Estatistika Planaren ezarritako helburuak kudeatzeko ondorioetarako bakar-bakarrik.

19. artikulua. Lankidetzak hitzarmenak.

Nafarroako Gobernuak Estatuko kasuan kasuko entitateekin lankidetzak hitzarmenak sinatzen ahalko ditu Foru Komunitatean lortutako laginak hobetzeko asmoz, banakatzetik lortutako estatistikek ordezkagarritasun handiagoa izan dezaten eta Nafarroari buruzko datuen ustiapena osoagoa izan dadin.

Xedapen gehigarri bakarra. 2011. urteko Estatistika Programaren onespena.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak 2011. urteko Estatistika Programa onetsiko du.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzen diren xedapenak.

Indarrrik gabe gelditzen da Nafarroako 2007-2010 Estatistika Planari buruzko urriaren 20ko 11/2006 Foru Legea, bai eta foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeari V. titulua erantsi zaio.

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeari V. titulua erantsi zaio. Hona testua:

“V. TITULUA

Nafarroako populazioaren erregistroa

48. artikulua. Nafarroako Populazioaren Erregistroaren sorrera.

Nafarroako Populazioaren Erregistroa sortzen da. Erregistroan datu hauek jasoko dira: izena, abizenak, helbidea, sexua, jaioteguna eta NANaren zenbakia, edo atzerritarren kasuan, agiri horren ordezkaria. Datu horiek Nafarroako Foru Komunitateko udal guztietako biztanleen erroldetan eta hauteskunde zentsuan agertzen direnak izanen dira.

49. artikulua. Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak lortzea.

Nafarroako Populazioaren Erregistroko datu pertsonalak Estatistikako Institutu Nazionalak emanen ditu, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

50. artikulua. Interesdunen eskubideak erabiltzea.

Interesdunek datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzeko eta haien aurka jotzeko eskubidea erabiltzen ahalko dute, Nafarroako Estatistika Institutura jotuz.

51. artikulua. Nafarroako Populazioaren Erregistroaren helburua.

1. Nafarroako Populazioaren Erregistroaren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organoen eta lurralde honetako biztanleen arteko komunikazioa, organo horiek esleiturik dituzten eskumenak erabiltzearen ondoriozko harreman juridiko-administratiboaren esparruan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-organoei Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak ukitutako pertsonaren aurretiko baimena izan gabe erabiltzen ahalko dituzte, bakar-bakarrik, beren eskumenak erabiltzeko behar baldin badituzte, eta egoitza edo helbidea jakitea datu garrantzitsua denean besterik ez.

3. Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak Nafarroako Estatistikako Institutuari eskatuko zaizkio. Informazio hori zertarako behar den adieraziko dute eskatzaileek eta, horrekin batera, frogatu egoitza edo helbidea datu garrantzitsua dela kasu horretan.

4. Nafarroako Estatistika Institutuak ematen dituen fitxategiaren kopietan datu hauek agertuko dira bakarrik: izen-abizenak, helbidea, sexua eta jaioteguna.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-organoei Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak erabiltzen ahalko dituzte, orobat, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Legean ezarritakoaren arabera estatistika ofizialak egiteko.

52. artikulua. Konfidentzialtasuna.

Aurreko artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik, Nafarroako Populazioaren Erregistroko datu pertsonalak konfidentzialak dira eta haiek ikusteko Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiko zaio, eta ordezkotza gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoari.

53. artikulua. Nafarroako Populazioaren Erregistroko datuak erabiltzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-organoei titulu honetan adierazitako bideetatik lortu duten informazioa ezin izanen da manipulatu, ez eta laga ere. Nafarroako Estatistika Institutuari igorritako eskaeran adierazitako eginkizunetarako baizik ez da erabiliko eta eskatutako xedeko lana bukatu ondoren suntsitu beharko da.

54. artikulua. Segurtasun neurriak.

Nafarroako Populazioaren Erregistroko segurtasun neurriak oinarritzeko izanen dira, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren VIII. tituluan ezarritakoaren arabera.

ERANSKINA

Izena: Nafarroako Populazioaren fitxategia:

a) Azalpena: fitxategi honek udaletako biztanleen erroldetan eta hauteskunde zentsuan agertzen diren datu pertsonal hauek jasotzen ditu: izena, abizenak, helbidea, sexua, jaioteguna eta NANaren zenbakia, edo atzerritarren kasuan, agiri horren ordezkotza. Datuak Estatistikako Institutu Nazionalaren fitxategietatik atera dira.

b) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-organoen eta Nafarroan egoitza duten datuetako tituluaren arteko komunikazioa, organoen eskumenen ondoriozko harreman juridiko-administratiboaren esparruan, egoitza edo helbidea jakitea datu garrantzitsua den gaietarako, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren 2. idatzatian xedatutakoari jarraikiz.

c) Zein pertsona edo giza-talderen datuak lortu nahi diren: Nafarroako udal guztietako erroldetan eta hauteskunde zentsuan inskribaturik dauden egoiliarak.

d) Datuen jatorria: Estatistikako Institutu Nazionala.

e) Datuak biltzeko prozedura: datuen transferentzia fitxategien bidez, Estatistikako Institutu Nazionalak aldi behin kopia eguneratuak emanaz Nafarroako Estatistika Institutuari.

f) Fitxategiaren oinarritzeko egitura eta datuen mota: udaletako biztanleen erroldetan eta hauteskunde zentsuan inskribaturik diren herritarren datuak, urtero urtarrilaren 1ean eguneratuak. Informazio hau jasoko da: izena, abizenak, helbidea, sexua, jaioteguna eta NANaren zenbakia, edo atzerritarren kasuan, agiri horren ordezkotza zenbakia.

g) Aurreikusten diren datu lagapenak eta datu eskualdaketak hirugarren herrialdeetara: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-organoei, haiek eskatuz gero, beren eskumenak erabiltzeko datu horiek behar dituzten kasuetarako, eta bakar-bakarrik egoitza edo helbidea jakitea datu garrantzitsua den kasuetan, lege mailako arauetan ezartzen denari jarraikiz. Ez da nazioarteko eskualdaketarik aurreikusi.

h) Administrazio organo arduraduna: Nafarroako Estatistika Institutua.

i) Erregistroko datuak ikusi, zuzendu eta ezabatuzko eta haien aurka egiteko eskubideak fitxategiaren arduradunaren aurrean erabiltzen ahalko dira, hots, Nafarroako Estatistika Institutuan.

j) Segurtasun neurriak eta eskatzen den maila: oinarritzekoak."

Azken xedapenetan bigarrena. Erregelamenduzko garapena egiteko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege honetan aurreikusitakoa garatu eta betetzeko behar diren xedapenak emateko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek 2011ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

IV. ESTADISTIKA PLANA — 2011-2016 ZERRENDA, DEPARTAMENTUZ DEPARTAMENTU

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

ZK.	IZENA
12001	ELKARTEEN ERREGISTROA
12002	LANBIDE ELKARGOEN ERREGISTROA
12003	FUNDAZIOEN ERREGISTROA
13001	ERREGISTRO OROKORRAREN JARDUERA
15001	NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALAREN JARDUERAREN ADIERAZLEAK
21001	FORUZAINGOAREN JARDUKETEN GAINEKO ESTADISTIKA
27001	SOS-NAFARROAREN BIDEZ TRAMITATURIKO LARRIALDIAK
27002	PREBENTZIO, SU-ITZALTZE ETA SALBAMENDU ZUZENDARITZAREN GAINEKO ESTADISTIKA
29001	IKUSKIZUN PUBLIKOEN ETA JOSTETA JARDUEREN LOKALEN ERREGISTROA
29002	JOKO MAKINAK
29003	ZIRKULATZEKO BAIMEN OSAGARRIAK
29004	NAFARROAN HILDAKOAK ERAGIN DITUZTEN ZIRKULAZIO ISTRIPUAK
30002	NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA JARDUERAK
31002	PROZESU PSIKOTEKNIKOAK, NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN SARRERA, IGOERA ETA LEKUALDAKETETARAKO DEIALDIETAN
32001	POLITIKA PUBLIKOAK ETA ZERBITZU PUBLIKOEN KALITATEA EBALUATZEKO ERREGISTROA
34001	HIZKUNTZAK EGIAZTATZEA, NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN SARRERA, IGOERA ETA LEKUALDAKETETARAKO DEIALDIETAN
35001	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOKO LANGILE PUBLIKOAK SARTZEKO HAUTAKETA DEIALDIAK
42001	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LANGILEEN GAINEKO ESTADISTIKA
51001	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN
52001	WWW.NAVARRA.ES NAFARROAKO ATARIKO ERABILERAREN AZTERKETA
64001	NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIAREN GAINEKO ESTADISTIKA

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

ZK.	IZENA
112001	NAFARROAKO SOZIJETATE PUBLIKOEN URTEROKO TXOSTENA
112002	NAFARROAKO AURREKONTU OROKORRETAKO LIKIDAZIOAREN GAINEKO ESTADISTIKAK
112003	EMANIKO DIRU-LAGUNTZEN GAINEKO ESTADISTIKA
114001	NAFARROAKO ZORRA
114002	NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN GAINEKO ESTADISTIKAK
131001	EUROPAR BATASUNEN FUNTSEN DIRU-SARRERAK NAFARROAN, 2007-2013
151002	KONTRATUEN ERREGISTRO PUBLIKOA
162001	LIBURUTEGIEN GAINEKO ESTADISTIKA
162002	LIBURUGINTZA
162003	IRAKASKUNTZA PRIBATUKO FINANTZAKETAREN ETA GASTUEN GAINEKO ESTADISTIKA
162004	UDALETAKO ERROLDAK
162005	NAFARROAKO BIZILAGUNEN ZERRENDA

- 162006 POPULAZIOAREN MUGIMENDU NATURALEN GAINEKO ESTATISTIKA. UGALKORTASUN ETA JAIOTZA TASEN AZTERKETA
- 162007 POPULAZIOAREN MUGIMENDU NATURALEN GAINEKO ESTATISTIKA. EZKONTZA TASAREN AZTERKETA
- 162008 POPULAZIOAREN MUGIMENDU NATURALEN GAINEKO ESTATISTIKA. HERIOTZA TASAREN AZTERKETA
- 162009 MIGRAZIOEN AZTERKETA
- 162010 NAFARROAN BIZI DIREN ATZERRITARREN GAINEKO DATU ESTATISTIKOAK
- 162011 ETXEBIZITZA ALDAKETAK
- 162012 EGOERA SOZIALAREN ADIERAZLEAK
- 162013 HERRI IZENDEGIA
- 162014 NAFARROAKO KALE IZENDEGIA
- 162015 NAFARROAKO URTEKARI ESTATISTIKOA
- 162016 HAUTESKUNDEETAKO EMAITZEN GAINEKO ESTATISTIKAK
- 162017 BIZI BALDINTZEN GAINEKO INKESTA
- 162018 FAMILIEN AURREKONTUEN GAINEKO INKESTA
- 162019 NAFARROAKO KONTSUMITZAILEEN EGOERA EKONOMIKOAREN GAINEKO INKESTA
- 162020 KANPOKO MERKATARITZAREN GAINEKO ESTATISTIKA
- 162021 EGOERA EKONOMIKOAREN ADIERAZLEAK
- 162022 NAFARROAKO HIRU HILABETEKO KONTABILITATEA
- 162023 NAFARROAKO INPUT-OUTPUT ESPARRUA
- 162024 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTUAK
- 162025 URTEKO KONTU EKONOMIKOAK
- 162026 JARDUERA EKONOMIKOAREN UNITATEEN ZERRENDA
- 162027 HIPOTEKEN GAINEKO ESTATISTIKA
- 162028 KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA (KPI)
- 162029 MERKATARITZAKO EFEKTU ORDAINGABEAK ETA ITZULIAK
- 162031 MERKATARITZA SOZIETATEAK
- 162032 ZERBITZUEN GAINEKO URTEROKO INKESTA
- 162033 TXIKIZKAKO ZERBITZUEN EGOERAREN GAINEKO INKESTA
- 162034 TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA
- 162035 ERAIKUNTZA ETA ETXEBIZITZAREN GAINEKO INKESTA
- 162036 ERAIKUNTZAREN EGITURAREN GAINEKO INKESTA
- 162037 ZERBITZUEN SEKTOREAREN JARDUERAREN ADIERAZLEAK
- 162040 EGOERA INDUSTRIALAREN GAINEKO INKESTA
- 162041 ENPRESEN GAINEKO INKESTA INDUSTRIALA
- 162042 PRODUKTUEN GAINEKO INKESTA INDUSTRIALA
- 162043 I+G JARDUEREN GAINEKO ESTATISTIKAK
- 162044 ENPRESETAKO BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN GAINEKO INKESTA.
- 162045 INDUSTRIA EKOIZPENAREN INDIZEA (IEI)
- 162046 INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA
- 162047 ZIENTZIAKO ETA TEKNOLOGIAKO GIZA BALIABIDEEN GAINEKO ESTATISTIKAK
- 162048 BIOTEKNOLOGIAREN ERABILERAREN GAINEKO ESTATISTIKAK
- 162051 ESTATISTIKA JUDIZIALAK. ZIGORTUAK
- 162052 ESTATISTIKA JUDIZIALAK. ADINGABEEN EPAITEGIAK
- 162053 ESTATISTIKA JUDIZIALAK. SUIZIDIOA ESPAINIAN
- 162056 INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN GAINEKO INKESTA. NAFARROAKO ENPRESAK

- 162057 INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN GAINEKO INKESTA. NAFARROAKO ETXEAK
- 162058 NAFARROAKO GIZARTE BABESAREN KONTUAK
- 162059 BIZTANLERIA AKTIBOAREN INKESTA (BAI)
- 162060 LAN KOSTUEN GAINEKO HIRU HILEAN BEHINGO INKESTA (LKHBI)
- 162062 LAN KOSTUEN GAINEKO URTEROKO INKESTA
- 162063 LANSARIEN EGITURAREN GAINEKO INKESTA
- 162064 OSTATU TURISTIKOEN BETETZE MAILAREN GAINEKO INKESTA. HOTEL ESTABLEZIMENDUAK
- 162065 OSTATU TURISTIKOEN BETETZE MAILAREN GAINEKO INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK
- 162066 OSTATU TURISTIKOEN BETETZE MAILAREN GAINEKO INKESTA. KANPALEKU TURISTIKOAK
- 162067 OSTATU TURISTIKOEN BETETZE MAILAREN GAINEKO INKESTA. LANDA TURISMOKO OSTATUAK
- 162068 HOTELETAKO PREZIOEN INDIZEA (HPI)
- 162069 HOTELEN DIRU-SARREREN INDIZEA (HDSI)
- 162070 NAFARROAKO ESTADISTIKA INSTITUTUAREN WEB ZERBITZARIAREN GAINEKO ESTADISTIKAK
- 162071 UDALEN ADIERAZLEAK
- 162072 ATZERRIKO TURISTEN JOAN-ETORRIAK (FRONTUR)
- 162073 TURISTA ESPAINIARREN JOAN-ETORRIAK (FAMILITUR)
- 162074 GASTU TURISTIKOAREN GAINEKO INKESTA (EGATUR)
- 162075 KONKURTSOEN PROZEDURAREN GAINEKO ESTADISTIKA
- 162076 IKASTETXEEN FINANTZAKETAREN GAINEKO ESTADISTIKA
- 162077 OSASUN ZENTROEN FINANTZAKETAREN GAINEKO ESTADISTIKA
- 162078 FINANTZA ETA ASEGURU ERAKUNDEEN GAINEKO ESTADISTIKA
- 162080 BIZTANLERIA AURREIKUSPENAK
- 162082 FAMILIEN EGITURAREN AZTERKETA
- 162083 INBERTSIO ESKARIAREN GAINEKO INKESTA
- 162084 INKESTA SOZIALA
- 162085 ESKUALDEEN ARTEKO MERKATARITZAREN GAINEKO ESTADISTIKA
- 162086 ETXEBIZITZEN PREZIOEN INDIZEA
- 162087 GENERO ADIERAZLEAK
- 162090 EZKONTZA BALIOGABETZEEN, BANANTZEEN ETA DIBORTZIOEN GAINEKO ESTADISTIKAK
- 162091 HIRIETAKO ERRENTAMENDUEN GAINEKO ESTADISTIKAK
- 162092 BAKE EPAITEGIEN GAINEKO ESTADISTIKAK
- 162093 DENBORAREN ERABILERAREN GAINEKO 2009KO ETA 2010EKO INKESTA
- 162094 OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOAK
- 162095 ATZERRITARREN ADIERAZLEAK
- 162096 FAMILIAK ETA FAMILIA OSAERA
- 162097 BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN 2011KO ERROLDA
- 162098 ERAIKINEN ETA LOKALEN 2011KO ERROLDA
- 162099 ERAIKUNTZAREN EGOERAREN GAINEKO INKESTA
- 162100 NAFARROAKO ENPRESEN ZERRENDAREN USTIAKETA ESTADISTIKOA
- 162101 UGALKORTASUNAREN GAINEKO INKESTA
- 162102 NEKAZARITZA ERROLDA
- 171001 ZERGA-BILKETAREN GAINEKO TXOSTENA
- 171002 SOZIJATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ESTADISTIKAK
- 171003 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ESTADISTIKAK
- 171005 PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ESTADISTIKAK
- 172001 LANDA ABERASTASUNAREN IKUSPEGIA

Toki Administrazioiko Departamentua

ZK.	IZENA
215001	TOKI ENTITATEEN ZOR BIZIA
215003	AZPIEGITURA PLANEN KUDEAKETA (APK)
215004	TOKI ENTITATEEN AURREKONTUEN LIKIDAZIOAK
215005	TOKI ENTITATEEN AURREKONTUAK
215006	NAFARROAKO UDALERRIEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO SISTEMETAKO EKIPAMENDUAREN INBENTARIOA
215007	TOKI ENTITATEEN ZERBITZUEN BERRIKUNTZA ETA KALITATE ARLOKO INBERTSIOAK
215008	HONDAKIN UREN ARAZKETA
215009	UDALETAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA (012)
215010	PARTZUERGOAREN BARNEAN HONDAKINAK KUDEATZEA, NAFARROAKO HIRI HONDAKINEN TRATAMENDURAKO

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

ZK.	IZENA
321001	PLANEAMENDUKO INBENTARIOA
322001	ETXEBIZITZA BABESTUEN GEHIENENKO PREZIOAK-SALMENTA
322002	ETXEBIZITZA BABESTUAK EROSTEKO DIRU-LAGUNTZAK
322003	HASI ETA BUKATUTAKO ETXEBIZITZAK
322004	ZAHARBERRITUTAKO ETXEBIZITZAK
322005	ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Hezkuntza Departamentua

ZK.	IZENA
401001	HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN GAINEKO ESTADISTIKA
423032	UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK: ikastetxeak, ikastetxeen zerrenda
423033	UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK: matrikula
423034	UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK: gradudunak
423035	UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK: langileria
423036	UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK: LP/enpresetako praktikak
423037	IKASTEKO BEKAK ETA LAGUNTZAK
423038	INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN GIZARTEA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAN
431002	UNIBERTSITATEKO IKASLEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIEN GAINEKO ESTADISTIKA
431003	PRESTAKUNTZA ETA I+G PLANETARAKO LAGUNTZEN GAINEKO ESTADISTIKA
431004	UNIBERTSITATE HEDAPENERAKO JARDUEREN GAINEKO ESTADISTIKA
431006	NAFARROAKO UNIBERTSITATEEN ETA IRUÑEKO ETA TUTERAKO UHUN ZENTROEN GAINEKO ESTADISTIKA
442002	EUSKARAREN GAINEKO NAFARROAKO INKESTA SOZIOLOGIA
442003	NAFARROAKO MAPA SOZIOLOGIA
442004	HELDUENTZAKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZA NAFARROAN
442005	EUSKARAREN EGITUREN ETA EKIPAMENDUEN GAINEKO INKESTA
442006	EUSKARARAKO AURREKONTUEN GAINEKO INKESTA

Osasun Departamentua

ZK.	IZENA
511001	OSASUN ZENTRO, ZERBITZU ETA ESTABLEZIMENDUEN ZERRENDA
511002	NAFARROAKO GILTZURRUNEKO GAIXO KRONIKOEN ERREGISTROA
511003	OSPITALEAK
511004	AURRETIAZKO BORONDATEEN ERREGISTROA
511005	ORGANOEN ETA EHUNEN TRANSPLANTEA
512003	GIB-AREN BIDEZKO INFEKZIO KASUEN ERREGISTROA
512004	ELIKAGAIEN INDUSTRIEN ZERRENDA
512005	NAHITAEZ ADIERAZI BEHARREKO GAIXOTASUNAK
512006	HIES-AREN ERREGISTROA
512007	GIZA KONTSUMORAKO URAREN KALITATEA
512008	MINBIZIAREN NAFARROAKO ERREGISTROA
512009	MIOKARDIOKO INFARTU AKUTUEN ERREGISTROA
512010	GARUNEKO HODIETAKO GAIXOTASUNEN ERREGISTROA
513001	ARRETA ESPEZIALIZATUAN LAGUNDURIKO GAIXO TASAREN ESKUALDEKO ERREGISTROA
513002	NAFARROAKO OSASUNAREN KONTUA
513003	HAURDUNALDIA NAHITA ETETEA
513004	ZENTZEAK, HERIOTZAREN ZERGATIKOEN ARABERA
520001	NAFARROAKO TRANSFUSIO ZENTROKO ETA ZERBITZUETAKO JARDUERAREN GAINEKO ESTADISTIKA
520002	NAFARROAKO SORTZETIKO ANOMALIEN ETA GAIXOTASUN HEREDITARIOEN ERREGISTROA
521001	OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN GASTUAREN GAINEKO ESTADISTIKA
521002	OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN BALIABIDEEN GAINEKO ESTADISTIKA
522001	OSASUN MENTALAREN GAINEKO INFORMAZIO SISTEMA
522002	OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN ARRETA ESPEZIALIZATUKO JARDUERAK
522003	ATZERAPENAK OSASUN LAGUNTZA PUBLIKOAN
522004	DIAGNOSTIKOAREN ARABERAKO MULTZOAK (DAM) OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAN
523002	NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN ERABILTZAILIEN DATU BASEA
523003	OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN OINARRIZKO OSASUN ARRETAKO JARDUERA
523004	PRESTAZIO FARMAZEUTIKORAKO INFORMAZIO SISTEMA
523005	OSPITALEZ KANPOKO LARRIALDIETARAKO ZERBITZUAREN JARDUERA
523007	KONTSULTEN ZERGATIKOAK OINARRIZKO OSASUN ARRETAN
523008	GIZA BALIABIDEAK ETA BIZTANLERIA OINARRIZKO OSASUN ARRETAN
523009	HAUR ETA GAZTEEN HORTZAK ZAINTEZKO PROGRAMA (PADI)
530001	LAN BALDINTZEN ETA OSASUNAREN GAINEKO INKESTA
532001	ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN ERREGISTROA
532002	LAN GAIXOTASUNEN ERREGISTROA
532003	LAN ISTRIPUEN ERREGISTROA
532004	LAN ARRISKUEN ERREGISTROA (AMIANTOA)
532005	LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEKO ZERBITZUEN ZERRENDA
532006	ZENTINELA GERTAKARIAK LAN OSASUNEAN
532007	EZINTASUN IRAUNKORRAREN ERREGISTROA

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

ZK.	IZENA
612001	NAFARROAKO ERREPIDE SAREAREN GAINEKO OINARRIZKO ESTATISTIKA
612002	NAFARROAKO ERREPIDE SAREAREN ZAINKETAREN KUDEAKETA
612003	NAFARROAKO ERREPIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN KOPURUAK
612004	NAFARROAKO ERREPIDE SAREKO ISTRIPU ETA HILDAKOEN GAINEKO ESTATISTIKA
612005	ISTRIPU UGARIKO TARTEEN EGOERA NAFARROAKO ERREPIDEETAN
613001	INBERTSIOAK ETA KONTRATAZIOAK HERRI LANETAN
621001	ERREPIDEKO GARRAIOAREN SEKTOREKO ENPRESEN EGITURA
621002	ERREPIDEKO GARRAIO IBILGAILUEN PARKEA
621003	AIREKO GARRAIOAREN GAINEKO ESTATISTIKA
621004	SALGAIEN ERREPIDEKO GARRAIOAREN GAINEKO ESTATISTIKA
621005	TRENBIDEKO GARRAIOAREN GAINEKO ESTATISTIKA
621006	BIDAIAIARIEN ERREPIDEKO GARRAIO ERREGULARRAREN GAINEKO ESTATISTIKA
621007	ESKUALDEKO HIRIKO GARRAIOAREN GAINEKO ESTATISTIKA

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

ZK.	IZENA
714001	NEKAZARITZAKO MAKINEN ERREGISTROA
714002	HAUSNARKARIEN USTIATEGIEN ZERRENDA
714003	TXERRIEN USTIATEGIEN ZERRENDA
714004	HILTEGIEN ZERRENDA
714005	BEHOR, UNTXI, HEGAZTI ETA ABARREN USTIATEGIEN ZERRENDA
714006	NEKAZARITZAKO USTIATEGIEN ERREGISTROA
714007	KALITATEKO DEITURA DUTEN PRODUKTUEN ZERRENDAK
714008	LURRAREN ERABILERA
714009	LABOREEN URTEROKO EKOIZPENAK
714010	LABOREEN URTEROKO AZALERA
714011	LABORE UZTEN KOPURUAK
714012	BEHI AZIENDAREN GAINEKO INKESTA
714013	TXERRI AZIENDAREN GAINEKO INKESTA
714014	ARDI ETA AHUNTZ AZIENDAREN GAINEKO INKESTA
714015	ABERE HILTZEEN GAINEKO INKESTA
714016	BEHI, ARDI ETA AHUNTZ ESNEAREN EKOIZPENA
714017	ARTILEAREN EKOIZPENA
714018	ABEREEN BESTE PRODUKTU BATZUEN EBALUAZIOA
714019	ABERE MERKATARITZAREN MUGIMENDUAK
714020	LURRAREN PREZIOAK
714021	LANDA ERRENTAMENDUEN KANONAK
714022	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN ASTEROKO PREZIOAK
714023	NEKAZARI ETA ABELTZAINEK JASOTAKO PREZIOAK
714024	NEKAZARI ETA ABELTZAINEK PAGATUTAKO PREZIOAK
714025	MUNTA GUTXIKO PRODUKTUEN PREZIOAK
714026	NEKAZARITZAKO LANSARIAK
714027	NEKAZARITZAKO KONTABILITATEAREN GAINEKO INFORMAZIO SAREA

- 714028 EKOIZPEN SISTEMEN EKONOMIAREN AZTERKETA
- 714029 MARJINA GORDIN ESTANDARRAK LORTZEA: LANDAREAK ETA ANIMALIAK
- 714030 KONTU MAKROEKONOMIKOAK
- 714031 MAHASTIAREN ERREGISTROA
- 714032 METEOROLOGIA
- 714033 NEKAZARITZAREN ETA ELIKAGAIEN SEKTOREAREN ADIERAZLE EKONOMIKOAK
- 722001 NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIEN ETA ENS-EN ERREGISTROA
- 741001 NAFARROAKO IBAIEN KONTROL BIOLOGIKORAKO SAREA
- 741002 NAFARROAKO IBAIEN NEURKETA ESTAZIOEN KONTROLERAKO SAREA
- 741003 NAFARROAKO IBAIEN KONTROL FISIKO ETA KIMIKORAKO SAREA
- 741004 NAFARROAKO LUR AZPIKO UREN KONTROL FISIKO ETA KIMIKORAKO SAREA
- 741005 NAFARROAKO BAINURAKO UR NATURALAK KONTROLATZEKO SAREA
- 741007 IBAIAK HOBETZEKO JARDUKETAK
- 741008 NAFARROAKO AIREAREN KALITATEA
- 741009 HONDAKINAK BIRZIKLATZEA: papera, beira, plastikoa eta metalak
- 741010 INDUSTRIAKO HONDAKINEN SORRERA
- 741011 HIRIETAKO HONDAKIN SOLIDOEN SORRERA
- 741013 BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURPENA
- 741014 ZARATAREN ERAGINPEAN DAGOEN BIZTANLERIA
- 741015 BEROTEGI EFEKTUKO GASAK ISURTZEKO ESKUBIDEEN MERKATARITZA ARAUBIDEA
- 742001 NATURAREN INTERPRETAZIO ZENTROETAKO BISITARIEN KOPURUA
- 742002 IDATZIZKO KONTSULTAK EDO ESKABIDEAK, INGURUMENAREN ETA URAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAK ERANTZUNIKOAK
- 742003 EGURRAREN MOZKETA ETA BALANTZEA
- 742004 OINARRIZKO BASO JARDUKETAK
- 742005 BASO JARDUKETEN GASTU OSOA
- 742006 EHIZA ETA ARRANTZA BAIMENAK
- 742007 EHIZARAKO ETA ARRANTZARAKO ESPEZIEAK
- 742008 NATURGUNE BABESTUAK
- 742009 ALDAKETAK LURZORUAREN ERABILERAN
- 742010 KUDEAKETA ZINEGETIKOA
- 742011 ESPEZIE INBADITZAILEAK
- 742012 TOKIKO AGENDA 21 DUTEN UDALAK
- 742013 UGALKETARAKO BASO MATERIALA
- 742014 ANTOLAMENDU PLANA DUEN BASO AZALERA
- 742015 MENDIETAKO KALTEEN JARRAIPENA
- 742016 BASOBERRITZEAK
- 742017 BASOKO SUTEAK
- 742018 ESPEZIE MEHATXATUAK (FLORA ETA FAUNA)

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua

ZK. IZENA

- 811001 BALANTZE ENERGETIKOAK
- 811003 INDUSTRIA SEKTOREKO INBERTSIORAKO LAGUNTZAK
- 812001 I+G LAGUNTZAK

- 814002 NAFARROAKO TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN ZERRENDA
- 831001 ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA
- 831002 HITZARMEN KOLEKTIBOAK
- 831003 KOOPERATIBAK
- 831004 LANGUNEAK IREKITZEKO JAKINARAZPENEN ZERRENDA
- 831005 HITZARMEN KOLEKTIBOEN ZERRENDA
- 831006 LANEKO ARRISKUEI AURREA HARTZEKO SISTEMETAKO AUDITORETZA ENPRESEN ZERRENDA
